

SARRERA

Ibai Díaz, Sanaa Akkouh, Jonathan Morán eta Ainara López gara proiektu honen sortzaileak. Haurrentzako baina batez ere, behar bereziak dituzten umeentzako aisialdirako gune bat sortzea erabaki dugu “Unimomuny” izeneko, lokalak, gela handi bat izango du behar bereziak dituzten haurrentzat, ez ditugu adinaren arabera sailkatuko.

Beste gela txikiago bat egongo da behar berezirik ez duten umeentzat baina bi gelak elkarturik egongo dira eta askatasun osoz sar daitezke batean edo bestean, haien interesen arabera. Taberna txikitxo bat egongo da, nondik umeek egiten dutena ikus daitekeen. Denda txikitxo bat ere jarriko dugu non material birziklatuekin egindako jostailuak salduko ditugun, egurrezko jostailuekin batera.

Lokala Gasteiz hirian kokatuko dugu, Lakuako Merkatal zentroan, bertatik egunero jende asko pasatzen delako eta gure enpresa ezagutarazteko onuragarria izango delako.

Alde batetik umei zuzentzen gara, Merkatal zentroan gehien bat jendea erosketetara joaten delako eta umeak gurasoek erosten duten bitartean ondo pasatzeko eta ikasteko leku bat izatea bilatzen dugulako. Azkenean, oso ugaria da ume bat gurasoak erosketak egiten dituzten bitartean galtzea, korrikatan ibiltzea...

Beste aldetik, behar bereziak dituzten umei zuzendu gara gehien bat; izan ere, ezaugarri hauek dituen umeentzako ez dago horrelako zerbitzu espezializaturik.



UNIMOMUNY

Jonathan Morán, Ainara López, Ibai Diaz eta Sanaa Akkouh.